



Angela Wasunna

Kenyako legelaria

“Kolonizatzaileak ez ziren konturatu Afrikan zein errotuta zegoen ohiturazko Zuzenbidea”

Angela Amondi Wasunna, *Hastings Center for Bioethics*-eko (Garrison, New York) Nazioarteko Programetako asoziatua da, eta Kenyako Auzitegi Goreneko abokatua. 1996an Zuzenbidean lizentziatu zen Kenyako Nairobi Unibertsitatean, eta ondoren Bioetikaren espezializaturiko Master bat egin zuen Montrealgo McGill Unibertsitatean (Kanada). Duela gutxi, berriz, Zuzenbide Master bat egin du Harvard-en (EEBB). 1996tik 1997ra bitartean, Kenyako abokatu bufete batean aritu zen lanean, eta 1999an Hego Karolinako (EEBB) Medikuntza Fakultateko *Institute of Human Values in Health Care* Institutuko irakasle bisitaria izan zen. Angelak beste arlo batzuetara ere zabaldu ditu bere ikerketak: osasuna eta giza eskubideak, ugalketari buruzko legeria eta politika, osasunaren finantziakzioa garapen bidean dauden herrialdeetan, nekazaritzako bioteknologiaren inplikazio etikoak eta HIESaren inguruko gai etiko-legalak. Hirugarren Munduko herrialdeetako –eta bereziki Afrikako– Bioetikaren garapenean ere interesatuta dago.

1.

Kenyako Zuzenbidea aztertzen hasi baino lehen, komenigarria litzateke bertako historian azkenaldian izan diren gertakari nagusiak aztertzea, egungo sistema juridikoa hobeto ulertu ahal izateko.

Kenyak oso historia luzea du, mende askotakoa, Afrikako Estatu gehienek bezala. Afrika ekialdean dagoen Rift bailarari “Gizateriaren sehaska” deitzen diote askotan, bertan munduko giza aztarnarik zaharrenetari-koak aurkitu zituztelako, duela 2,6 milioi urteko-

ak. Historialariek diotenez, Bantu eta Nilot-ek milurtekoaren hasieran migratu zuten Afrika ekialdera, eta 200 urte geroago arabiarrek kostaldera iritsi ziren. Arabiar, feniziar, indiar, txinar eta afrikarren arteko merkataritza K.o. 700. urtean loratu zen kostaldean. Zazpiehun urte geroago, K.o. 1400 urtean, portugesak etorri ziren, batik bat mineralak biltzera, eta beren erlijioa zabaldu zuten. Gainera, inperio bat sortu zuten Afrika ekialdeko kostaldean, eta hirurehun urtez beren esku egon zen eskualdeko merkataritza. XIX. mende hasieran, gehienbat Europatik etorritako misiolari eta esploratzaileen eragina Afrika barrualderantz hedatzen hasi zen.

Nire ustez, Kenyaren historia modernoan azpimarratu beharreko lehenengo unea, Mombasatik Ugandarako trenbidea eraiki zeneko garaia da. 1896an hasi ziren eraikitzen, eta bost urteren buruan amaitu zuten. Britainiarrek Punjab-etik (egungo India eta Pakistanetik) ekarri zituzten trenbidea eraikitzeke langileak. Kenya eta Uganda arteko trenak Kenyan barneratzeko aukera eman zien kolonizatzaile europar berriei, eta, bestetik, mendizerrako tenperaturak, paisaiak eta lurren emankortasunak jende asko erakarri zuten. Kolonizatzaile britainiar askok lurra erosi zituzten, bai mendizerran eta baita Nairobin ere, Kenyako hiriburuan. Trenbidea eraikitzeke lanak amaitu zituztenean, europarrek nekazaritzarako lurretan gelditzea erabaki zuten, eta indiarrak trenbidearen ibilbidean zehar merkataritza eta artisautza lantzen gelditu ziren. Garai hori erabakigarria izan zen Kenyaren historian, une horretatik aurrera demografia eta lurren jabetza goitik behera aldatzen hasi zirelako. Ordurako Kenyan bazezgoen Europatik lehenago etorritako jendea, batez ere esploratzaile eta misiolariak, baina urte haiek desberdinak izan ziren, britainiarrak ez zirelako lurralde berriak esploratzera bakarrik etorri, baizik eta konkistatzera. Kenya kolonizatzeke asmoa zeukaten.

1895ean Britainia Handiaren protektoratu izendatu zuten Kenya, eta 1920an kolonia. 1944ra arte, afrikarrek debekatuta izan zuten politikan zuzenean parte hartzea. 1950ean Mau Mau errebelioa kolonizatzaile britainiarren aurka altxatu zen, eta une larriak bizitu ziren. Kenyako tribu etnikorik handienetakoa Gikuyu-ena da, eta Mau Mauak hain zuzen ere batik bat Gikuyuz zeuden osatuta. Kolonizatzaileek hartutako lurralde gehienak Gikuyuenak ziren. Baina ez ziren matxinatu lurraldeak bidegabeki eskuratu izanaren aurka bakarrik, baizik eta baita ere gobernu kolonizatzailearen gehiegikerien aurka, Kristautasuna inposatu izanaren aurka, eta beren haurrak misiolarien eskoletara eramateko obligazioaren aurka. Modu askotara borrokatu ziren: britainiarren etxeak inbaditu zituzten, jendea hil zuten (bai kolonizatzaileak, bai britainiarren lagun egin ziren edo haiei laguntzen zieten kenyarrak), etab. 1960an, altxamendua geldiarazteko, britainiarrek tropa militar batzuk ekarri zituzten Erresuma Batutik, baina, azkenean, Gobernu britainiarra konturatu zen galduta zeukala borroka hura, eta gainera gero eta kritika gogorragoak jasotzen zituen, ez kenyarren aldetik bakarrik, baizik eta baita britainiarren aldetik ere. Orduan, britainiarrak boterea kenya-
ren esku uzten hasi ziren. Afrikarrek 1957an hartu zuten lehenbizikoz parte Legebiltzarra aukeratzeko hauteskundeetan. Kenyak 1963ko abenduaren 12an lortu zuen independientzia, eta Jomo Kenyatta izan zen lehenengo presidentea.

“ Kolonizazioak iraun zuen bitartean, afrikarrek Zuzenbide britainiarra bete behar izan zuten. Baina beren tribuetan, beren etxeetan, ohiturazko Zuzenbidea gordetzen eta aplikatzen jarraitzen zuten



2.

Nolako zen Kenyako gizartea kolonizatzaile britainiarrak iritsi aurretik?

Kontuan izan behar da Kenyaren mugak, eta Afrikako beste 49 Estatuena, Europako agintariekin finkatu zituztela, 1884ko Berlingo Konferentzian. Bileran hartan, kolonizatzaileek (Portugal, Frantzia, Britainia eta Alemaniak) beren artean banatu zuten Afrika. Prozesu horri, “Afrikaren gaineko jabetza lortzeko borroka” deitzen zaio, askotan indarkeria erabili zutelako Afrikako lurraldeak eskuratu eta bertan beren Zuzenbidea inposatzeko. Mugak arbitrarioki finkatu zituzten, tribu etnikoen kokapen geografikoa kontuan hartu gabe, eta, ondorioz, etnia bereko jendearen artean muga politiko eta administratiboak ezarri zituzten. Gainera, etsaituta zeudenak lurralde berean elkarbizitzen jarri zituzten.

Berlingo Konferentzia ospatu baino lehen, Afrikaren %80a tribu lokal tradizionalekin kontrolatzen zuten. Tribu etniko independente asko zeuden elkarbizitzen, gobernu forma berezietan. Wangako Luyia-n, esate baterako, “Nabongo” izeneko monarkia hereditario batek zekan agintea. Nabongotarren kasuan, beraiek aukeraturako buruzagiek gobernatzen zuten. Beste alde batetik, Luo-tarrak “Ogendini” izeneko sistema klasista baten arabera zeuden antolatuta. Klan bakoitzean, araugile baten eta zaharren batzarre baten esku zegoen agintea. Afrikako tribu gehienek beren ohiturazko Zuzenbidearen arabera sortutako egitura administratiboak zeukaten. Kolonizatzaile eta misiolari britainiarrak Afrikara iritsi zirenean, ohiturazko Zuzenbidea gutxiesten

eta deuseztatzen saiatu ziren, afrikarren Zuzenbide nagusia hori zen arren. Kolonizazioak iraun zuen bitartean, afrikarrek Zuzenbide britainiarra bete behar izan zuten. Baina beren tribuetan, beren etxeetan, ohiturazko Zuzenbidea gordetzen eta aplikatzen jarraitzen zuten. Eta gaur egun ere hori egiten jarraitzen dute.

3.

Zeintzuk dira Afrikako sistema juridiko nagusiak?

Lehenik eta behin, Afrikako ohiturazko Zuzenbidea azpimarratu behar da. Kontuan izan behar da Afrikan milaka tribu etniko daudela; Kenyan bertan berrogei bat. Tribu etniko horietako bakoitzak bere ohiturazko Zuzenbidea dauka. Askoren kasuan, historia berdintsua dutenez, eta geografikoki elkarrengandik hurbil daudenez, antzekotasun handiak dauzkate, baina beti dago desberdintasunen bat.

Beste alde batetik, Zuzenbide islamiarra dago. Islama aspaldi errotu zen Afrikan; misiolari eta kolonizatzaileak iritsi baino askoz ere lehenago. Arabiarrek merkataritzan aritzen ziren Afrika Ekialdeko kostaldean, eta barnealdera sartu zirenean beren erlijio eta arauak zabaldu zituzten. Tradizio islamiarra oso errotuta dago Afrikako Mendebalde eta Iparraldeko eskualdeetan, eta Ekialde eta Erdialdean ere bai. Kenyako kostaldean, adibidez, ehunka urte dira Zuzenbide islamiarra dagoela, baina beste eskualde batzuetara duela berrogeita hamar urte baino gutxiago iritsi da. Beraz, memento honetan ohiturazko Zuzenbidea eta Zuzenbide islamiarra dauzkagu bertan. Asiarrak Afrikara etorri zirenean, beren bizimodua eta legeak ekarri zituzten, batik bat Zuzenbide hindua.

Kolonizatzaile europarrek ere beren arau propioak ekarri zituzten Afrikara. Beraz, britainiarrek kolonizatutako eskualdeetan *Common Law* aplikatzen zen, eta Frantziak eta Portugalak kolonizatutakoetan, berriz, Zuzenbide Zibila. Zuzenbide erromatar-holandarrak nahiko eragin handia izan zuten Hegoafrikako Zuzenbidean. Eskualde askotako Zuzenbide idatziak kolonizatzaileen lege sistemaren arabera eratu dira. Hala ere, Zuzenbide horietako gehienek klausula berezi batzuk dauzkate, kolonizatzaileen legeria bere osotasunean aplikatu beharrean beren ohiturazko lege eta arauak aplikatzeko.

4.

Zenbateko eragina izan du kolonizatzaileen Zuzenbideak Afrikako ohiturazko Zuzenbidean?

Kolonizatzaile europar gehienentzat, afrikarren Zuzenbidea basati eta barbaroa zen, "paga-

“ Eskualde askotako Zuzenbide idatziak kolonizatzaileen lege sistemaren arabera eratu dira ”

noa”. Afrikarrak inolako Zuzenbiderik gabe bizi zirela iruditzen zitzairen, indartsuenaren legea aplikatuz. Egoera horren aurrean, kolonizatzaileak beren arauak inposatzen saiatu ziren. Baina ez ziren konturatu Afrikan zein errotuta zegoen ohiturazko Zuzenbidea, bizitzako alderdi guztietan. Beraz, lehenik eta behin, ohiturazko lege horiek fama txartzen eta gutxiesten saiatu ziren. Eta, neurri batean, lortu egin zuten. Oraindik topa daitetzke beren tradizioak gutxietsi eta primitibotzat jotzen dituzten afrikar elitista batzuk.

Beste alde batetik, kolonizatzaileek mendebaldeko Zuzenbidea inposatzean, afrikarrak Zuzenbide horren aurka jarri ziren, eta beren nortasun eta kultura indartzeko beharra ikusi zuten. Afrikako eskualdeak, batez ere independentzia lortu zutenean, araudiak nazionalizatzen, indigenizatzen hasi ziren. Abolitu egin zituzten kolonialismoaren aztarnak zeuzkaten arauak, eta beren ohiturazko arau eta tradizioak sustatzen hasi ziren, mendebaldeko legeen maila juridiko berean ipintzeko.

Afrikar batzuentzat, beren kultura eta legeria maila baxuagokoak ziren, baztertu egin behar zirela pentsatzen zuten. Nahiago zuten mendebaldeko ikuspegia; aurrerakoiagoa iruditzen zitzairen. Baina afrikar gehienek, kolonizazioaren aurrean, beren nortasuna indartzeko beharra ikusi zuten. Konkistatzaileei aurre egiteko gogoa piztu zitzairen. Indar hori oso elementu bateratzaile garrantzitsua izan zen independentziaren aldeko borrokan.

5.

Itzul gaitezen Kenyara. Zein araudi aplikatzen da zure eskualdean?

Lehenik eta behin, eta beste arau guztien gainetik, 1960ko Konstituzioa dago. Kenyako eta Britainia Handiko agintariek Lancaster England-en prestatu eta sinatu zuten, independentzia lortzeko negoziatzen aritu ostean. Bide batez, esan dezadan uneotan Konstituzioa berrikusten ari garela,

gizarteak independentzia lortu zuenez gerotzik izan dituen aldaketak islatzeko. Konstituzioaren lehenengo aldaketa nagusia, 1991ko abenduan egin zen. 2A artikulua berridatzi zen, alderdi politiko bakar bat izan beharrean, batzuk izateko. Aldaketa honek erabat aldatu zuen Kenyako testuinguru politikoa. Orduetik egin da beste aldaketarik, hala nola presidentziaren epea mugatzeko. Orain, gehienez bi agintaldi izan ditzake jarraian, bakoitza lau urtekoa.

Bigarren maila batean, Parlamentuak onartu dituen legeak osatzen duten Zuzenbide estatutarioa daukagu. Legeak onartzeko ekimena, normalean, Justizia ministroak edo parlamentariak izaten dute. Hiritarrek ere beren proposamena parlamentuan aurkez ditzakete, baina prozedura hau besteak baino gutxiagotan erabiltzen da.

Hirugarren Zuzenbide iturria, *Common Law* da, hau da, urteen poderioz indar juridikoa hartu duten Ingalaterrako ohitura eta praktika zaharrak. 1967ko Kenyako Epaitzaren Legediak dio *Common Law* eta Ekitatearen Doktrina ingelesa Kenyako inguruabar eta biztanleek onartzen duten neurrian aplikatu daitezkeela, eta inguruabarrak eskatzen dituzten aldaketekin.

Horiez gain, ohiturazko Zuzenbidea, Islamiar Zuzenbidea eta Indiar Zuzenbidea ere badauzkagu. Arau hauek familia, etxea eta pertsonaren alorretan bakarrik aplikatzen dira (ezkontza, kustodian, mantenduan eta oinordetza), eta betiere justizia edo moralitatearekin bateragarriak badira, eta Zuzenbide idatzia urratzen ez badute.

6.

Nolakoa da Kenyako egitura judiziala?

Kenyako Zuzenbidean, oro har, Zuzenbide Publikoa eta Zuzenbide Pribatua bereiz ditzakegu. Zuzenbide Publikoak (Zuzenbide Konstituzionala eta Zuzenbide Penal), Estatuaren eta gizabanakoen arteko harremanak arautzen ditu, bakea eta elkarbizitza bermatzeko. Zuzenbide Pribatuak, berriz, gizabanakoen arteko harremanak arautzen ditu.

Kenya zortzi probintzietan dago banatuta, eta probintziak barrutietan. Barruti bakoitzean hiru epaitegi maila daude, gai penal eta zibil arinak ebazteko. Gero, Magistratu Erresidenteen Epaitegiak daude (*Resident Magistrates Courts*). Hauen artean maila desberdinak daude, magistratuaren aitzinatutasunaren arabera; horrela, magistratu erresidente seniorren eta magistratu erresidente nagusien epaitegiak daude. Hauen gainetik, Auzitegi Gorena dago (*High Court*). Auzitegi hau Konstituzioko 60. artikulua ondo-

rioz sortu zen, eta gai penalak, zibilak eta administratiboak ebazten ditu. Auzitegi Konstituzionala ere bada, Konstituzioaren interpretazioaren inguruko arazoez ere arduratzen delako. Auzitegi hau osatzen duten epaileak Epailen Gobernuak (*Judicial Service Commission*) proposatzen ditu, eta Kenyako presidentek izendatzen ditu. Azpimarratzekoa da Kenyako Auzitegi Goreneko 30 epaileetatik bost emakumeak direla. Azkenik, eskualdeko auzitegi guztien artean gorena, Apelazio Auzitegia da (*Court of Appeal*). Auzitegi Goreneko apelazioak ebazten ditu. Kenyan Helegite epaitegitetako hamaika epaile daude (*Court of Appeal Judges*), eta horietako bat emakumea da. Epaitegi honen erabakiak ezin dira helegin, eta Zuzenbidearen interpretazio arazoez bakarrik arduratzen da; ez du gatazkarik ebazten.

7.

Mintza gaitzen Kenyako ohiturazko Zuzenbideaz...

Ohiturazko Zuzenbidea da afrikarrek ezkontza, dibortzio, kustodia, mantenu, oinordetza eta heriotza kasuetan aplikatzen duten lehenengoa. Ohiturazko arau hauek ez daude idatzita, baina belaualdiz belaualdi transmititzen dira, ahoz. Tribu bakoitzeko pertsonarik zaharrenak arduratzen dira Zuzenbide hau kontserbatzeaz. Gatazkaren bat sortzen denean, beraiengana jotzen da, ohiturazko Zuzenbideak zer dioen jakiteko.

Baina badira ohiturazko tradizioetan eragindakoa duten arau batzuk ere. Esate baterako, Oinordetzen Araudia. Bere helburua, neskei gurasoen jabetzaren oinorde izateko aukera ematea da, ohiturazko Zuzenbideak ez dielako aukera hori ematen.

Ohiturazko Zuzenbidearen arloan Kenyan izan den kasurik ezagunenetakoa, ehorzketa baten inguruan gertatua da. Labur-labur azalduko dut: 1986an, S.M. Otieno izeneko abokatu kenyar ospetsu bat *ab intestato* hil zen, eta orduan gatazka sortu zen bere alargunaren eta bere tribuaren artean. Kikuyu alargunak bere soroetan ehortzi nahi zuen senarra, eta bere tribuak, berriz, tribuaren lurretan, bere jaioterrian. Otienoren gorpua non ehortzi zen kontua. Azkenean, Kenyako Apelazio Auzitegiak erabaki zuen bere tribuaren lurretan ehortzi behar zela. Erabaki honek kritika ugari jaso zituen, agerian jartzen zuelako epaileek ohiturazko Zuzenbidea aplikatzea erabaki zutela kontuan hartu gabe hildakoak, bizirik zegoenean, baztertu egin zituela Afrikako ohitura tradizionalak. Epai hau ikusita, galdera bat sortzen da: pertsona batek, bere borondatez, egin diezaieke uko ohitura tradizionalari? Auzi hau ez da oraindik guztiz konpondu.

8.

Zer gertatzen da ohiturazko Zuzenbide desberdina duten bi lagun ezkontzean edo haur bat izatean? Zein Zuzenbide aplikatzen da?

Gehienetan, senarraren ohiturazko Zuzenbideko erritoak betetzen dira, baina badira salbuespen gutxi batzuk, gizarte matriarkaletan batez ere. Lege gatazka sortzen denean, alderdiek nahi izanez gero, ohiturazko auzitegi batera jo dezakete. Auzitegi hauetako kideak, gatazkan dauden tribuen lege eta ohituretan aditu diren zaharrak izaten dira.

Baina auzitegi judizialetera jotzea erabakitzen baldin badute (Magistratuen Auzitegira, edota Auzitegi Gorenera), alderdi bakoitzak tradizioa ondo ezagutzen duen aditu talde bat bildu beharko du, bere alde deklaratzeko. Kontraesanezko prozedura jarraitzen da. Gero, epaileak, aurkeztu zaizkion frogetan oinarrituz, erabaki bat hartuko du. Zuzentasun doktrinak ere aplikatzen dira, batik bat adituek ez dituztenean alderdien posizioak ondoegi artikulatu.

Nire ustez, prozedura hori oso interesgarria da ohiturazko Zuzenbidea kontserbatzeko, tradizioa sakonki ezagutzen duten zaharrei parte hartzeko aukera ematen zaielako, eta beren testigantza auzitegietan jasota gelditzen delako. Gainera, antzeko beste kasuetarako, idatzita gelditzen diren aurrekariak sortzen dituzte.

9.

Ohiturazko Zuzenbidean, Kenyan bakarrik aurki daitekeen instituziorik ba al duzue?

Ohiturazko lege ugari dauzkagu, baina ez Kenyan bakarrik, baizik eta Afrika osoan. Tribu bakoitzak bere tradizio eta arau propioak dauzka. Ohiturazko Zuzenbideak, orokorrean, ezkontza, jaiotza, hilobiratzea eta oinordetzarako erritoak arautzen ditu.

Ezkontza, senar-emazteen familien arteko kontratu bat da. Tribu gehienetan, senargaiak eta bere familiak, ezkondu aurretik, dotea eman behar izaten diote emaztegaiaren familiari: behiak, ahuntzak... balioa duen edozer. Ordainsari bat baino gehiago, aprezioa adierazteko modu bat da. Bikoteak diborziatzea erabakitzen baldin badu, emazteak, etxetik alde egin baino lehen, itzuli egin beharko dio dotea senarrari.

Familia ugariak izugarri garrantzitsuak dira Afrikako ohiturazko Zuzenbidean. Tribu askotan, gizon bat nahi adina emakumerekin ezkon daiteke, betiere denak zaintzeko gai baldin bada.

Gainera, gizon batek daukan emazte kopurua, askotan, bere aberastasun mailaren isla izaten da. Kontua da lehen, lana egiteko, beharrezkoa zela familia ugaria izatea. Emazteek eta seme-alabek zelaiak lantzen aritu behar izaten zuten, baina gaur egungo familiek ez dituzte hainbeste lur izaten, eta gainera garestia da haurrak haztea, beraz familiak ez dira hain ugariak izaten. Hala ere, Afrikako kultura eta tradizio gehienetan poli-gamiak funtsezkoa izaten jarraitzen du, eta ez nekazaritzaren inguruetan bakarrik –nahiz eta hor kontserbatzen den ondoen ohiturazko Zuzenbidea–, baizik eta baita hirietan ere.

Ohiturazko Zuzenbide askotan, jaiotzak eta guzti arautzen dira: nolakoa izan behar duen, nork egon behar duen presente, haurrari zein izen ipini behar zaion, etab. Jaiotzaren unea oso garrantzitsua da, orduantxe sartzen delako haurra tribuan. Afrikan askotan esaten da herri oso bat behar dela haur bat hazteko. Haurrak tribu osoarenak dira, ez guraso biologikoenak bakarrik. Herriko edonor ardura daiteke haurrak zaintzeaz, hezteaz, garbitzeaz, janzteaz, elikatzeaz...

Tribu askotan, haurtzarotik gaztarora pasatzean errito bat egiten da, eta, kasu batzuetan, zikunzisia ere bai. Baina beste tribu batzuetan, Luo-en kasuan adibidez, gazteei beheko hortzak kentzen zaizkie, adore eta gizontasunaren seinale. Emakumeek, gizonen baino pixka bat lehenago egiten dute hori. Ohitura hauek landan zein hirietan betetzen dituzte. Jendeak bere jaioterrira eramaten ditu bere seme-alabak, hango tribuan parte hartzeko. Tribu batzuetan, gaztarora pasatzearen errito hauetan parterik hartzen ez bada, nahiko ondorio gogorak izaten dira.

Nire tribuan (Luo) bada beste ohitura bat, emazteen oinordetzari lotuta. Gai honek eztabaida dezente pizten ditu. Gizon bat hiltzen denean, bere anaiak hartzen du hildakoaren emaztearen eta seme-alaben gaineko ardura, eta bereak balira bezala tratatzen ditu. Hilobiratzerakoan bete beharreko errito eta zeremoniak oso garrantzitsuak dira: gorpua lurrian nola kokatu, nola hilobiratu, etab. Tribu batzuek, gorpuarekin batera, bere hurrengo bizitzan lagungarri izango zaizkion gauzak ere hilobiratzen dituzte. Afrikako kulturaren erlijioa eta Zuzenbidea nahiko lotuta daude. Guk heriotzaren ondoren beste bizitza bat dagoela pentsatzen dugu, eta, horregatik, gurtu egiten dugu hildakoaren espiritua.

10.

Emakumezkoen zirkunzisia kritika ugari jaso ditu. Zer pentsatzen duzu horren inguruan?

Pozten naiz “zirkunzisia” hitza erabili duzula, eta ez “mutilazio genitala”. Azken honek oso

itxura negatiboa ematen du, gurasoek edo gizar-teak mina egitera behartuko balute bezala.

Hasteko, datu batzuk emango dizkizut. Milioi bat emakume ingururi egiten zaio zirkunzisia, batez ere Afrikan. Zirkunzisia mota desberdina daude: *Mild Sunna*-tik hasi (klitoriseko prepuzioa kentzen da, eta ia ez du minik egiten), eta klitoris osoa edo zati bat eta ezpain txikiaren zati bat kentzera bitartekoak. Zirkunzisia motarik faraonikoena, eta gehien zabaldua dagoena, klitoridektomia da: ezpain txikia eta ezpain handiaren azpiko geruzak kentzen dira. Batez ere Egipton, Somalian eta Etiopiako eremu batean egiten da. Afrikako ia eskualde guztietan zirkunzidatzen dira emakumeak. Kenyan ez dute tribu guztiek egiten. Luoeak, adibidez, ez dituzte zirkunzidatzen ez gizonezkoak, ez emakumeak.

1920an, kolonialismoaren urteetan, emakumezkoen zirkunzisia puri-purian zegoen, eta misiolari britainiarrek Kikuyu emakumeak zirkunzidatzea debekatzeko eskatu zioten Gobernu kolonizatzaileari. Baina orduan Kikuyuak matxinatu egin ziren, eta zirkunzidatzen jarraitu zuten, britainiarrei nolabait aurre egiteko modu bat zelako. Horren ondorioz, Kikuyu emakumeak zirkunzisia eskatzen hasi ziren.

Zirkunzisia mota batzuk gizonezkoen zirkunzisia baino arriskutsuagoak izaten dira. Baina ezin dira zirkunzisia mota guztiak kondenatu, hastapenaren erritualaren alderdi bat besterik ez direlako. Hastapena izugarri garrantzitsua da Afrikako emakume askorentzat, horren bidez gaztaroen sartzen direlako, eta horrela estatus berri bat lortzen dutelako. Gainera, gauza onuragarri asko irakasten zaizkie hastapen garaian. Neska gehienak zeremonia horretan parte hartzeko irrikan egoten dira.

Ez gaizki ulertu: ez zait zuzena iruditzen adingabeak zirkunzidatzea, batez ere ez zaielako onespenerik eskatu ere egiten beren bizitza aldatzeko gauza den praktika honi. Baina arazo bat ikusten dut hor: lege penalek zirkunzisia zigortzen dute bere atzean zer dagoen ulertzen saiatu ere egin gabe. Mendebaleko feministekin ere arazoak izaten ditut: Afrikako emakumeak gizonei menpekotuta bizi direla esaten dute, gizonek gozatzeko zirkunzidatzen direla. Baina feminista hauetako asko ez dira konturatzen mendebaldeko gizartean antzeko gauza asko gertatzen direla. Har dezagun, adibidez, bularrak handitzeko operatzen diren emakumeen kasua –irakur bedi “bularren mutilazioa”–. Ez al dute gizartearen nolabaiteko eraginagatik egiten? Emakume horiek gizonengatik egiten dute hori, eta gizartearen onspena

“ Ez zait batere egokia iruditzen misiolariak, feministak eta moralaren aldarrikatzaileak Afrikara etorri eta zirkunzisia arbuiagarria dela esaten hastea ”

jasotzeko. Bada, gauza bera esan daiteke Afrikako emakumeei buruz. Gizarte batzuetan, zirkunzisorik egiten ez baldin baduzu, tribuak ez zaitu onartzen. Luze hitz egin nezake honen inguruan, baina ikuspegi orokorra azaltzera mugatzen ari naiz.

Beraz, ez zait batere egokia iruditzen misiolariak, feministak eta moralaren aldarrikatzaileak Afrikara etorri eta zirkunzisia arbuiagarria dela esaten hastea. Askoz egokiagoa izango litzateke praktika horrek eragiten dituen kalte fisikoez hitz egingo balute. Tribu askotako emakumeak desiratzen daude zirkunzisia gogorrenak baztertu, eta gizonezkoen zirkunzisia arekin pareka daitezkeen txikiagoetara pasatzeko. Nahi ez dutena da, beren kultura ulertzen saiatu ere egiten ez den jendeak esatea hori gizonek inposatutako praktika barbaro eta basati bat dela.

Beste alde batetik, Zuzenbide Penala ez zait gai hauetarako egokia iruditzen. Roscoe Pound-ek zioen bezala, “gizarte homogeneotan, Zuzenbideak jende guztiak betetzen dituen ohiturak kodifikatzen dituenean, Zuzenbidea inposatzeak ez du arazorik sortzen”. Nire ustez, gakoa hezkuntzan dago. Emakumei, amei batez ere, zirkunzisia zein kalte fisiko eragiten dituen adierazi beharko litzateke, emakumeak izaten direlako beren alabei zirkunzisia egiten dietenak.

Elkarrizketatzailea: Itziar Alkorta
Itzultzailea: Koro Garmendia